



Kattalin eta Pello



Balore morala: Erantzukizuna



Kattalinek eta Pellok Tximista jarri zioten izena izeba Engrazik oparitu zien txakur ttikiari. Tximistak baino azkarrago egiten zuelako lasterka eta tximista itxurako orbaina zuelako, aho ondoan.

- Hauxe bai txakur polita! Bai jostazalea eta mugitua! Tximista izango du izena -
esan zuen Kattalinek, etxeratu berri zitzaaien bisitariarekin pozik.
- Orain bi ez Kattalin, orain hiru izango gara etxean - pozik zen Pello ere.
- *GUAU, GUAU, GUAU* - adoretzu Tximistak.

Bion artean prestatu zioten sukaldean etxola txiki bat eta ohe moduko bat ere atondu zioten.


- *GUAU GUAU GUAU* - indartsua zen Tximistaren zaunka bere etorrerak eragin zuen pozaren eraginez.

Egun hartatik aurrera, ohiko bihurtu zitzaaien atearen sarrailan giltza sartzearekin batera Tximistaren zaunka - *GUAU GUAU GUAU* -, egokitu zitzaizkion nagusiez harro. Ez baitzen gutxiagorako. Ezin hobeki gobernatzen zuten Pellok eta Kattalinek, ohantzea egokitu, janari goxo goxoa eman...

A-Z hasten ziren egunetan Kattalinek egiten zituen txakurrarekikoak eta gainerako egunetan Pellok. Hala adostu zuten bi-biek. Tximistak ere ikasi zuen zer nola izaten ziren berekikoak. Astelehen astearte eta asteazkenetan Kattalinek ematen zion jaten eta gainerako egunetan Pellok.

Holaxe ziren gauzak Kattalin eta Pellorenean, gau euritsu batean Mikelek eta Kattalinak eztabaida izan zuten arte. Tximistak begiak erne bistatzen zuen sukaldea, eta bertan Kattalinen begiratu zorrotza Pelloren keinuekin. Haserre ziren nonbait. Eta triste geratu zen Tximista. Triste Pelloren begiratu serioagatik eta serio Kattalinek sukaldeko atea itxi zuelako. Bakar bakarrik geratu zen.

Hurrengo egunean, gosaritako orduan ez zioten jateko otarrean deus ere jarri. Guau, guau, guau tristea eskaini zion Tximistak Pellori eta honek betartea igurtziz erantzun zion, isilik. Alde egin zuen Pellok. Eta deus jatekorik gabe utzi zuen tximista. Guau, guau, guau, apala zen Tximistaren zaunka.



Kattalin eta Pello

Balore morala: Erantzukizuna



- Ez al diozu jaten eman? - Galdegin zion Kattalinek Pellori Tximistaren otarretxo hutsik ikusirik.
- Ez, zure txanda zela uste nuen.-
- Nire txanda? Baina ez al zara ohartzen ezin zaizula halakorik ahaztu? Arduratsua izan behar duzu Pello!! Goseak dago, gure Tximista! -

Damututa zirudien Pellok. Tximistaren begi tristeek esaten zioten ezin zuela halako ahazturarik izan. Horregatik, Tximistaren otarra janari goxoz bete eta Kattalini muxu handia eman zion.

- Barkatu Kattalin, ez da berriro ere gertatuko. Oraintxe aterako dut kalera Tximista eta gero afaria prestatuko dut. Egon zaitetz lasai - esan zion Pellok.

Kattalinek irribarre egin zion Pellori eta besarkada handi bat eman.

- GUAU GUAU GUAU - Pozarren zen Tximista berriro ere.

